Bizkaiko Foru Aldundiaren………/2018 Foru Dekretua, abenduaren 26koa. Honen bidez, 2019ko ekitaldian emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak egiteko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emango dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira.

Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia ……… /2018, de 26 de diciembre, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones que se concedan por el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad que tengan por finalidad la realización de proyectos de promoción de la igualdad de mujeres y hombres en el ejercicio 2019.

Aurreko urteetan bezala, aurten ere Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusiak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea ezarri du 2019. urterako helburuen artean. Horretarako, emakumeen elkartegintza sustatuko du, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko era guztietako elkarteetan genero-ikuspegia txertatzea ere bai.

La Dirección General de Igualdad, Cooperación y Diversidad del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, como en años anteriores, incluye entre sus objetivos para el año 2019 la promoción de la igualdad de mujeres y hombres fomentando el asociacionismo de las mujeres y la incorporación de la perspectiva de género en el tejido asociativo, en general, del Territorio Histórico de Bizkaia.

Ohi bezala, zeharkakotasunaren balioa eta bitartekoak kontuan hartuko dira Zuzendaritzaren jardunaren plangintzan eta diseinuan. Genero-ikuspegia Bizkaiko Foru Aldundiaren politika, programa eta jarduera guztietan txertatu behar dugu, bereziki, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteari, balioen aldatzeari eta emakumeen ahalduntzeari eta antolaketa sozial erantzunkideari dagokienez. Hiru horiek dira gobernantza hobetzeko neurriekin batera, Bizkaian Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako V. Foru Planaren (2016-2019) egitura osatzen duten esku-hartzearen ardatz nagusiak.

Los valores y los mecanismos de la transversalidad siguen estando presentes en la planificación y diseño de sus actuaciones. Debemos incorporar la perspectiva de género en todas las políticas, programas y acciones de la Diputación Foral de Bizkaia y que fijen especial atención a la erradicación de la violencia contra las mujeres, el cambio de valores y el empoderamiento de las mujeres y la organización social corresponsable. Estos son los tres ejes de intervención que, junto con las medidas para mejorar la gobernanza, conforman la estructura del V Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bizkaia. (2016-2019).

Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako zuzendaritzaren ustez, beharrezkoa da emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa, partaidetza soziopolitikoa eta autonomia bultzatuko dituzten ekintzak, proiektuak eta programak sustatzea eta bultzatzea, besteak beste, Bizkaiko emakumeen errealitatea aitortzea eta hura espazio publikoan

La Dirección de Igualdad Cooperación y Diversidad considera necesario impulsar y promover acciones, proyectos y programas que fomenten el empoderamiento individual y colectivo, la participación sociopolítica y la autonomía de las mujeres fomentando, entre otros, el reconocimiento y la visibilización correcta en el espacio público y en los medios

eta komunikabideetan ikusaraztea.

de comunicación de la realidad de las mujeres de Bizkaia.

Halaber, beharrezkotzat hartzen du emakumeen aurka egindako indarkeriaren prebentzioaren eta desagerrarazpenaren inguruko kontzientziazioa eta lankidetza bultzatzea., arreta berezia jarrita indarkeriaren forma sotilenetan —mikromatxismoetan, adibidez— eta maskulinitate-eredu tradizionala zalantzan jartzean. Halaber, proiektu eta programa berritzaileak sustatzeko apustua egiten du, erantzunkidetasuna sustatzeko eta bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko sustatzeko proiektuak, bai eta desberdintasun-edo ahultasun-egoera handienean dauden emakumeen parte-hartzea sustatzen duten proiektuak ere.

A su vez, considera necesario impulsar la concienciación y la colaboración de la sociedad en la prevención y erradicación de la violencia ejercida contra las mujeres con especial atención a las formas más sutiles de violencia como los micromachismos y el cuestionamiento del modelo tradicional de masculinidad. Asimismo apuesta por impulsar proyectos y programas innovadores que fomenten la corresponsabilidad y la conciliación de la vida personal, laboral y familiar de mujeres y hombre, así como aquellos proyectos que fomenten la participación de mujeres que se encuentran en posición de mayor desigualdad y/o vulnerabilidad.

Oraindik ere ezinbestekoa da estrategia erabiltzea boluntarioen artean eta, oro har, irabazteko asmorik gabeko erakundeen artean, berdintasuna eragozten duten oztopoak kentzeko eta botere-guneetan, indar-guneetan eta erabakiak hartzen diren esparruetan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua bultzatzeko. Halaber, beste bi alderdi nabarmendu behar dira: batetik, gazteen parte-hartze aktiboa eta, bestetik, umeak gai honen inguruan ahalik azkarren hezi beharra. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako eremu ez-formaletan hezkidetza-proiektuak bultzatu nahi ditugu, haren jatorria emakumeak baztertzen dituzten ezarritako balore eta arauetan oinarritzen den egitura-ezberdintasuna baita, eta ez besterik.

Asimismo, sigue siendo necesaria la adecuación de estrategias dentro del voluntariado y de las asociaciones sin ánimo de lucro en general, a fin de que se remuevan aquellos obstáculos que dificultan la igualdad y se fomente una participación equilibrada de mujeres y hombres en los centros de poder, influencia y toma de decisiones. Y mención especial merece la participación activa de la juventud en este proceso así como la necesidad de una temprana educación dirigida a la infancia. Queremos impulsar proyectos de coeducación en ámbitos no formales para la prevención de la violencia contra las mujeres, cuyo origen no es otro que la desigualdad estructural que se fundamenta en unas normas y valores establecidos que discriminan a las mujeres.

Beharrezkoa da gizartea beste era batez antolatzea eta erakundeek aldaketa horiek sortu eta finkatzen laguntzea. Politikan, ekonomian, gizartean eta kulturan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko borrokan elkarteen lanak daukan garrantzia aipatu beharra dago.

Es necesario que la sociedad se organice de una manera nueva y que las instituciones colaboren en la generación y consolidación de estos cambios. Hay que mencionar la relevancia del asociacionismo en la lucha por la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres en la vida política, económica, social y cultural.

Jakina denez, gizartea eraldatzeko balioak eta

Como es sabido, cualquier proceso de

jarrerak eta gizartearen beraren egitura eta antolamendua aldatu behar izanez gero, ezinbestekoa da Administrazioak eta herritarrek lankidetza estuan jardutea. Ildo honetatik, emakumeen elkarteek eta irabazi asmorik gabeko erakundeek eginkizun garrantzitsua dute xede dugun gizarte aldaketan.

Horregatik guztiagatik, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eginkizunak betez, diru-laguntzak emateko oinarriak eta deialdia arautu behar ditu, publizitatearen, lehiaren eta objektibotasunaren irizpideak aintzat hartuta.

Foru dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 14. Artikuluan ezartzen denez, txosten hauek egin dira:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren ebaluazio-txostena.

3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezkotasunari buruzko txostena.

Arlo honen gaineko eskumenari dagokionez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 4, 6 eta 24.3 artikuluekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, besteak beste, emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko jarduerak egitera bultzatuko dituzte elkarteak.

Halaber, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak Emakumeen

transformación social que conlleve cambios en valores y actitudes, en la estructura y organización social, requiere de una estrecha colaboración entre la administración y la sociedad. En este sentido, el trabajo de las asociaciones de mujeres y las entidades sin ánimo de lucro adquiere un protagonismo esencial en el cambio social propuesto.

Por todo ello, la Diputación Foral de Bizkaia, en ejercicio de sus funciones, procede a regular las bases y la convocatoria de subvenciones bajo los criterios de publicidad, concurrencia y objetividad.

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Tal y como establece el artículo 14 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, se han emitido los siguientes informes:

1. Informe jurídico del departamento promotor.
2. Informe de evaluación de impacto de género.
3. Informe de control económico.
4. Informe de legalidad.

En cuanto a la competencia en la materia, de conformidad con los artículos 4, 6 y 24.3 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres corresponde, entre otras, a la Diputación Foral de Bizkaia incentivar a las asociaciones a que lleven a cabo actividades dirigidas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres.

Asimismo, la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres

eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren eginkizunak jasotzen ditu, besteak beste: (8.g) artikulua) Bizkaiko mugimendu feministekin eta emakume-elkarteekin harremanetarako eta lankidetzarako bideak ezartzea eta koordinatzea, beharrezko baldintzak sortzea bertan garatzen den lana indartzeko; (8.h) artikulua) sustapen-neurriak ezartzea emakumeen elkartegintza indartzeko eta emakumeen ahalduntzea eta partaidetza sozio-politikoa sustatzeko; eta (8.f) artikulua) erakundeen artean partaidetza, koordinazioa eta lankidetza sustatzea eta foru-arau honetan ezarritako helburuak lortzeko behar diren elkarlan eta lankidetzarako tresnak garatzea; lankidetzan arituko da, bereziki, beste erakunde publiko batzuekin eta sozietate zibileko beste erakunde batzuekin, hain zuzen, ikuspegi intersekzionala oinarri helburu edo eginkizun hauek dituzten erakundeekin: emakumeen eskubideak sustatzea, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea, indarkeria matxista desagerraraztea eta genero-diskriminazioak ezabatzea.

recoge entre las funciones del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres en el artículo 8.g) el establecimiento y coordinación de cauces de relación y colaboración con el movimiento feminista y asociativo de mujeres de Bizkaia; asimismo, creación de las condiciones necesarias para el fortalecimiento de la labor que desarrollan, en el artículo 8.h) el establecimiento de medidas de fomento para el fortalecimiento del asociacionismo de mujeres y para la promoción del empoderamiento y la participación socio-política de las mujeres y en el artículo 8.i) la participación, coordinación y colaboración interinstitucional y desarrollo de cuantos instrumentos de colaboración y cooperación sean necesarios para alcanzar los objetivos de la presente norma foral, especialmente con otras instituciones y organizaciones de la sociedad civil que en razón de sus fines o funciones contribuyan a la promoción de los derechos de las mujeres, a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres, a la erradicación de la violencia machista y a la eliminación de las discriminaciones de género considerando un enfoque interseccional.

Dekretu hau idatzi denean, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, foru dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago aurrez ikusita.

En la redacción del presente decreto se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005, de 18 de febrero.

Xedapen hau onartzeko eskumenari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernua da horretarako organo eskuduna, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17.1.4 eta 17.2 artikuluen arabera.

En relación a la competencia del órgano para la aprobación de la disposición, a tenor de los artículos 17.1º. 4 y 17.2º. de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia ésta corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuak proposatuta eta

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Empleo, Inclusión Social

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2018ko abenduaren 26ko bileran gaia aztertu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. *Diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.*

2019ko ekitaldian emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak egiteko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emango dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira. Testua ondoren txertatu da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra. *Aurrekontuko diru-izendapenak.*

1. Foru dekretu honen arabera ematen daitezkeen diru-laguntzak –guztira 502.000 €- aurrekontuko zuzkidura honen kontura izango dira: Programa: 232114; organikoa: 0905; ekonomikoa: 451.00; proiektua: 2007/0056; 2019ko ekitaldian. Hona hemen diru-laguntzak, banakatuta:

a) II. Kapitulua. 2019ko ekitaldia: 148.000 euro.
b) III. Kapitulua. 2019ko ekitaldia: 354.000 euro.

2. Aurrekontuetako kredituen banaketa gutxi gorabeherakoa da. Horregatik, II. kapituluko ekintzak finantzatzeko esleitutako funtsak agortuko ez balira, III. kapituluan onartu beharreko proiektu kopurua handitzeko erabili ahalko dira.

3. Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bateginaren 56. artikuluaren arabera, dekretu honen inguruan onartu daitezkeen diru laguntzak baliozkoak izateko, ezinbestekoa da 2019. ekitaldiko aurrekontuan haren ondoriozko betebehar ekonomikoak finantziatzeko behar den kreditu nahikoa egotea.

e Igualdad, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia en reunión del día 26 de diciembre de 2018.

DISPONGO

Artículo Único. *Aprobación de las bases reguladoras y la convocatoria.*

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de concesión de subvenciones en el ejercicio 2019, en materia de promoción de la igualdad de mujeres y hombres, por el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, cuyo texto se inserta a continuación.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Única. *Consignaciones presupuestarias*

1. Las subvenciones que puedan otorgarse con arreglo al presente decreto foral se efectuarán con cargo a la dotación presupuestaria del Programa 232114, recogida en el orgánico 0905, económico 451.00, proyecto 2007/0056, por un total de 502.000 €, en el ejercicio 2019, y con el siguiente desglose:
a) Capítulo II. Ejercicio 2019: 148.000 euros.
b) Capítulo III. Ejercicio 2019: 354.000 euros.

2. La distribución de los créditos presupuestarios tiene carácter estimativo. Por tal motivo, en el supuesto de que no se agotasen los fondos consignados para financiar las acciones del capítulo II, podrán ser utilizados para incrementar el número de proyectos a aprobar en el capítulo III.

3. De acuerdo con el artículo 56 del texto refundido de la Norma Foral General Presupuestaria, se hace constar que la efectividad de la concesión de las subvenciones queda sometida a la condición suspensiva de existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones económicas derivadas del mismo en el ejercicio 2019.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. *Arau bidez garatzeko gaikuntza.*

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko titularrari ahalmena eman zaio dekretu hau osatzeko edo garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon emana, 2018ko abenduaren … (e)(a)n.

Ahaldun Nagusia/ Diputado General.

UNAI REMENTERIA MAIZ

DISPOSICIONES FINALES

Primera. *Habilitación para el desarrollo normativo.*

Se faculta a la persona titular del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, a dictar cuantas disposiciones considere necesarias para complementar o desarrollar el presente decreto.

Segunda. *Entrada en vigor.*

El presente decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Dado en Bilbao, a … de diciembre de 2018.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Foru Diputatua/ Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad

TERESA LAESPADA MARTINEZ

2019ko ekitaldian emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak egiteko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emango dituen diru-laguntzeen oinarri arautzaileak eta deialdia.

I.KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Xedea.*

1. Foru-dekretu honen bidez, 2019ko ekitaldian emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak egiteko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emango dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira.

2. Foru Dekretu honen bidez honako diru-laguntza mota hauek arautzen dira:

a) Emakume-elkarteentzako diru-laguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak egiteko direnak (II. kapitulua).

b) Irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako diru-laguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak egiteko direnak (III. kapitulua).

2. artikulua. *Erakunde onuradunak.*

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko emakume-elkarteek jaso ahal izango dituzte dekretu honetan ezarritako diru-laguntzak, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko emakume eta gizonen berdintasunerako VII. Planean eta Bizkaiko emakume eta gizonen berdintasunerako V. Foru Planean zehaztutako estrategiekin bat datorren proiektuak aurkeztea; baina, ezin dira

Bases reguladoras y la convocatoria de concesión de las subvenciones que se concedan por el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad que tengan por finalidad la realización de proyectos de promoción de la igualdad de mujeres y hombres en el ejercicio 2019.

CAPÍTULO I

Disposiciones generales

Artículo 1. *Objeto.*

1. Mediante el presente decreto foral se regulan las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones que se concedan por el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad que tengan por finalidad la realización de proyectos de promoción de la igualdad de mujeres y hombres.

2. Este decreto foral regula las siguientes modalidades de subvención:

a) Subvenciones a asociaciones de mujeres para proyectos de promoción de la igualdad de mujeres y hombres (Capítulo II).

b) Subvenciones a proyectos de promoción de la igualdad de mujeres y hombres para entidades sin ánimo de lucro (Capítulo III).

Artículo 2. *Entidades beneficiarias.*

1. Podrán obtener la condición de entidades beneficiarias las asociaciones de mujeres y las entidades sin ánimo de lucro del Territorio Histórico de Bizkaia, siempre que cumplan los requisitos siguientes:

a) Que presenten proyectos para la igualdad de mujeres y hombres en consonancia con las estrategias del VII Plan para la igualdad de mujeres y hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco y del V Plan Foral

inbertsio-proiektuak izan.

para la igualdad de mujeres y hombres en Bizkaia y no se trate de proyectos de inversión.

b) Sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

b) Que tengan su domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.

c) Emakume-elkarteek foru-dekretu honen II. kapitulurako eskaera aurkezten badute, elkarte eskatzailearen estatutuek betekizun gisa eskatzea emakumea elkartekide izan dadin.

c) En el caso de las asociaciones de mujeres que presenten solicitud al capítulo II del presente decreto, que los Estatutos de la asociación solicitante exijan como requisito para formar parte de ella ser mujer.

2. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan xedatutakoa aplikatuta, arau horretako 12. artikuluko 2., 3. eta 4. zenbakietan jasotako egoeretako batean dauden erakundeak ezin izango dira izan diru-laguntza hauen onuradun. Besteak beste, egoera hauetako batean daudenak:

2. En aplicación de lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la administración foral, no podrán obtener la condición de entidades beneficiarias aquellas en quienes concurra cualquiera de las circunstancias señaladas en los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la citada norma, como por ejemplo las siguientes:

a) Zerga-betebeharrak, zuzenbide publikokoak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea. Inguruabar hori eskabidea egiteko epearen barruan egiaztatu behar da, eta bere horretan iraun behar du diru-laguntza ordaindu eta justifikatzen denean.

a) Que no se hallen al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias, de Derecho público y de Seguridad Social. Esta circunstancia deberá quedar acreditada dentro del plazo de presentación de solicitudes y mantenerse en el momento de concesión y el pago.

b) Sexuarengatiko edozelako diskriminaziorik sortzeagatik, zehapen administratibo edo penalen bat jaso izana, zehapenean ezarritako epean zehar (maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12.2 h) artikulua betez).

b) Que hayan sido objeto de sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación por razón del sexo, durante el período impuesto en la correspondiente sanción en aplicación del artículo 12.2 h) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

c) Beren hautatze-prozesuetan edo jardunean, sexua dela-eta diskriminazioak egitea edo sexua dela-eta diskriminatzaileak diren jarduerak egitea. Salbuespena dira, hala ere, sexuen arteko ezberdintasunak zuzentzea helburu duten kasuak (maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12.4 artikulua aplikatuta)..

c) Que discriminen por razón de sexo en su proceso de admisión o en su funcionamiento o realicen actividades que sean discriminatorias por razón de sexo, salvo en los supuestos en que se busque un efecto de corrección de desigualdades entre sexos en aplicación del artículo 12.4 de la citada Norma Foral 5/2005, del 31 de mayo.

3. artikulua. *Diru-laguntzak emateko prozedura:*

Artículo 3. *Procedimiento de concesión:*

*norgehiagoka.*

1. Diru-laguntzak Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuaren foru agindu bidez emango dira, norgehiagoka araubidearen eta dagozkion oinarrietan ezartzen diren irizpideen arabera puntuaziorik handiena lortzen dutenei emango zaie diru-laguntza, eta beti ere aurrekontu-sailean ezarritako zenbatekoa muga izanik.

2. Nolanahi ere, ez da beharrezkoa izango lehentasun-hurrenkera bat ezartzea betekizun teknikoak betetzen dituzten eskabideen artean, baldin eta deialdi honetarako xedapen gehigarri bakarrean ezarritako kreditua nahikoa bada kontuan hartuta zenbat eskabide dauden aurkezpen-epea amaitu ondoren. Beharrezkoa izango da, betiere, eskabideek gutxieneko kalitate bat izatea, ebaluazio-irizpideen arabera.

3. Frogatzen ez bada erakunde eskatzaileak Bizkaiko Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordainduta dituela, eskaerari gaitz iritsiko zaio. Era berean, dagokion aurrekontu-izendapenean dagoen kreditua agortzea ere izango da laguntzetarako eskaerak ukatzeko arrazoia.

4. artikulua. *Eskabideak aurkeztea eta epeak.*

1. II. eta III. kapituluetako diru-laguntzak jaso nahi dituzten erakundeek egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dute eskabidea, nahitaez, atal guztiak behar bezala beteta, Administrazio Publikoen Administrazioa Prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluak ezarritakoaren arabera.

2. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita (hurrengo hilabetean amaituko da, argitaratu den

*concurrencia competitiva.*

1. La concesión de las subvenciones de los capítulos II y III se realizará mediante Orden Foral de la diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad en régimen de concurrencia competitiva, otorgándose la subvención a aquellas solicitudes que hayan obtenido mayor valoración, según los criterios que se establecen en los artículos correspondientes, teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria.

2. No obstante, no será necesario fijar un orden de prelación entre las solicitudes presentadas que reúnan los requisitos técnicos establecidos cuando el crédito consignado en esta convocatoria de acuerdo con la Disposición Adicional Única fuera suficiente atendiendo al número de solicitudes una vez finalizado el plazo de presentación siempre que las solicitudes posean la calidad mínima exigible atendiendo a los criterios de valoración.

3. Procederá la desestimación de la solicitud, si no se hubiera acreditado la situación regular de pagos con la Hacienda Foral de Bizkaia y frente a la Seguridad Social. Igualmente será motivo de denegación de la subvención solicitada el agotamiento de crédito existente en la consignación presupuestaria.

Artículo 4. *Presentación de solicitudes y plazos.*

1. Las entidades que deseen acogerse a las subvenciones previstas en los capítulos II y III deberán presentar la correspondiente solicitud debidamente cumplimentada en todos sus términos, obligatoriamente por sede electrónica, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.2.a. de la Ley39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

2. El plazo de presentación de las solicitudes será de un mes, a contar desde el día siguiente al de la publicación del presente decreto en el Boletín Oficial de Bizkaia (finalizará en el mes

egunaren baliokidean).

5. artikulua. *Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak.*

1. Edonola ere, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuaren foru aginduaren bidez onartutako inprimaki hauek bete beharko dira. Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orriko prozeduren katalogoan eta egoitza elektronikoan eskuratu ahal izango dira. Hauek dira inprimakiak (https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera):

a) Eskabidea.
b) Proiektuaren deskribapen-fitxa.

c) Sarrera eta gastuen aurrekontua.
d) Sarean lana egiaztatzea, bakarrik lankidetzan edo sarean egindako proiektuetarako, parte hartzen duten erakundeen konpromisoa jasoz.

2. Erakunde batek lehenengoz eskatzen badio diru-laguntza Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusiari edo aldaketaren bat gertatu bada, horren berri eman behar du eta, goian aipatutakoez gainera, ondoko agiriak aurkeztu behar ditu:

a) Estatutuen fotokopia, behin horiek behar bezala legeztatu eta gero.
b) Erakundea behar den administrazio erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen duen agiria (eguneratua).
c) Hartzekodunaren bankuko kontuaren fitxa, behar bezala beteta.

3. Bizkaiko Foru Aldundiaren esku lehendik dauden eta data zehatz bati ez dagozkion agirien ordez, zinpeko deklarazio bat aurkeztu ahal izango da, non adieraziko den agiri horiek ez dutela aldaketarik izan eta zer egunetan , zer sailetarako eta zer prozeduratarako aurkeztu ziren.

4. Halaber, diru-laguntzarako eskabidea aurkezteak

siguiente, el mismo día de su publicación).

Artículo 5. *Documentación a presentar con la solicitud.*

1. Los modelos específicos de solicitud, que se aprobarán por Orden Foral de la diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, estarán disponibles en el catálogo de procedimientos de la página web y en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia (https://www.ebizkaia.eus/es/inicio).:

a) Formulario.
b) Descripción del proyecto/actividad subvencionable.
c) Presupuesto de ingresos y gastos.
d) Acreditación del trabajo en red, solamente para proyectos en cooperación o en red donde se recoge el compromiso de las entidades coparticipantes.

2. Cuando se trate de la primera vez que la entidad solicita subvención ante la Dirección General de Igualdad, Cooperación y Diversidad o se haya producido alguna modificación debiendo en este caso hacer constar este extremo, además de los documentos relacionados en el apartado anterior, deberán presentarse:

a) Copia de los estatutos debidamente legalizados .
b) Documento acreditativo actualizado de la inscripción de la entidad en el registro administrativo correspondiente.
c) Ficha de parte acreedora debidamente cumplimentada.

3. Los documentos no referidos a una fecha concreta que ya obren en manos de la Diputación Foral de Bizkaia podrán suplirse con una declaración jurada de que estos no han sufrido modificaciones, indicando el departamento, la fecha y el procedimiento para el que fueron presentados.

4. Así mismo, la presentación de la solicitud de

ekarriko du baimena ematea Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusiari, Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzan ziurtagiriak eskatzeko, betiere eskatzaileek berariaz kontrakoa adierazi ez badute.

5. Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusiak beharrezko agiri eta informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango dizkie erakunde eskatzaileei, aurkezturiko eskabidea behar bezala ebaluatzeko eta ebazteko.

6. Entitate bakoitzak eskabide bakarra aurkez dezake.

6. artikulua. *Eskaera zuzentzea eta espedientea artxibatzea.*

Diru-laguntzaren eskabidea ez bada betetzen behar bezala, edota aginduzko dokumentazio guztia aurkezten ez bada, eskatzaileari hamar egun baliodunekoepea emango zaio akatsak zuzentzeko edota aginduzko dokumentuak aurkezteko. Epea emateaz batera honako hau adieraziko zaio: akatsak zuzentzen ez baditu edo aginduzko dokumentuak aurkezten ez baditu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da eta, hori adierazteko, berariazko ebazpena emango da, urriaren 1eko 39/2015 Legeko 68.1 eta 21.1. artikuluen arabera.

Erakunde eskatzaileetako batek eskabidea bertara joanez aurkezten badu, zuzendaritzak errekerimendua egingo dio, aurkezpen elektronikoaren bidez zuzen dezan. Ondorio horietarako, eskabidearen aurkezpenaren data zuzenketa egiten den data izango da.

7. artikulua. *Izapidetzea, ebazpena eta helegiteak.*

1. Diru-laguntzak Enplegua, Gizarte Inklusioa eta

subvención conllevará la autorización a la Dirección General de Igualdad, Cooperación y Diversidad de la Diputación Foral de Bizkaia para recabar los certificados a emitir por la Hacienda Foral y por la Seguridad Social siempre que no conste la expresa oposición de las personas solicitantes.

5. La Dirección General de Igualdad, Cooperación y Diversidad del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesaria para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

6. Cada entidad solicitante solo podrá presentar una única solicitud.

Artículo 6. *Subsanación de la solicitud y archivo del expediente.*

Si las solicitudes de subvención no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación preceptiva, se requerirá a la entidad solicitante para que en el plazo de diez días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición previa resolución expresa en tal sentido, conforme disponen los artículos 68.1 y 21.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

En el caso de que alguna de las entidades solicitantes presente la solicitud presencialmente, la dirección le requerirá para que sea subsanada a través de su presentación electrónica. A estos efectos, se considerará como fecha de presentación de la solicitud aquella en la que haya sido realizada la subsanación.

Artículo 7. *Tramitación, resolución y recursos.*

1. La concesión y, en su caso, la denegación de

Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez eman eta ukatuko dira, horrexetarako berariaz eratzen den Batzorde Teknikoak proposatutakoaren arabera.

las ayudas, será realizada mediante Orden Foral de la persona titular del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, a propuesta de la Comisión Técnica que se crea a tal efecto.

2. Batzorde Teknikoa kide anitzeko organoa da, eta diru-laguntzak emateko proposamenak egingo ditu.

2. La Comisión Técnica será el órgano colegiado de ordenación e instrucción, encargado de elaborar las propuestas de concesión correspondientes.

Batzorde Teknikoa, deialdi honetako kapitulu guztientzat, Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendari Nagusia, Berdintasunerako eta Dibertsitaterako Idazkari Teknikoa eta zuzendaritzako pertsonal teknikoa osatuko dute.

La Comisión Técnica estará integrada, para todos los capítulos previstos en esta convocatoria, por la persona titular de la Dirección General de Igualdad, Cooperación y Diversidad, la Secretaría Técnica de Políticas de Género y personal técnico de la misma.

3. Diru-laguntza emateko ebazpenean, dagozkion baldintza eta gorabehera guztiak zehaztuko dira: proiektua gauzatzeko epea, diru-laguntzaren zenbatekoa eta justifikatu beharreko kopurua, ekintzak justifikatu modua eta epeak, aurkeztu beharreko dokumentazioa etab. Gainera, ebazpenean erakunde onuradunen betebeharrak ere zehaztuko dira, dekretu honetan eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.

3. En la resolución de otorgamiento se señalarán las condiciones de la concesión, tales como plazo de ejecución, cantidad subvencionada y cantidad a justificar, forma y plazo de justificación de las acciones, documentación a presentar, etc., así como las obligaciones de las entidades beneficiarias en base a lo establecido en este decreto, así como en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

Halaber, diru-laguntzen xedea eta helburuak betetzeko, kasu jakin batzuetan baldintza bereziak ezarri ahal izango dira, jardueren izaera zehatza nahiz bestelako inguruabarrak direla-eta komeni bada. Kasu horietan, ebazpenean bertan ezarriko dira baldintza berezi horiek.

Igualmente podrán establecerse condiciones particulares para cada caso cuando, por la naturaleza específica de las actividades u otras circunstancias concurrentes, se estimen convenientes para el cumplimiento de la finalidad y objetivos de las subvenciones.

4. Eskatutako laguntza emateko edo ematen den ebazpenak edo erabakiak administrazio-bidea agortuko du, eta ebazpenak urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoari jarraituz jakinaraziko dira (40-44 artikuluak).

4. La resolución o acuerdo por los que se proceda a la concesión o denegación de la subvención solicitada, que agota la vía administrativa, se notificará a las personas interesadas de acuerdo a lo previsto en los artículos 40 a 44 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

5. Organo eskudunak prozeduraren ebazpena jakinarazita ondoren, erakunde onuradunak hamar eguneko epea edukiko du diru-laguntza onartzeko, eta, epe horretan berariaz ezer adierazten ez badu, isilbidez onartutzat joko da.

5. Notificada la resolución del procedimiento por el órgano competente, la entidad beneficiaria dispondrá de un plazo de diez días para su aceptación, transcurrido el cual sin haberse producido manifestación expresa se

entenderá tácitamente aceptada.

6. Eskabideak ebatzi eta jakinarazteko epea, gehienez ere, 6 hilabete izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Epe horretan ez bada ebazpen espresurik, ezetsitzat joko dira diru-laguntzen eskabide horiek, ezertan eragotzi gabe Administrazioak espresuki ebazteko duen eginbeharra.

6. El plazo máximo para la resolución y notificación de las solicitudes será de 6 meses, desde la finalización del plazo para presentar solicitudes, considerándose desestimadas las peticiones de subvención si no recayera resolución expresa a dicha fecha, sin perjuicio de la obligación de la administración de resolver expresamente las mismas.

7. Haren aurka interesdunek, nahi badute, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote ebazpena edo erabakia eman duen organoari; bestela, interesdunek zuzenean errekurritu ahal izango dute administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioan.

7. Contra la resolución, las personas interesadas podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el órgano que los hubiere dictado, o impugnarlos directamente ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

8. Emandako diru-laguntzen publizitateari dagokionez, emandako diru-laguntzen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua emango da. Hauek adieraziko dira: aurrekontuko zer programari eta krediturі egozten zaizkion, eta adjudikaziodun gertatu diren erakundeen eta bakoitzari emaniko diru-kopuruen zerrenda.

8. En cuanto a la publicidad de las subvenciones otorgadas, se ordenará la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia del extracto de las subvenciones concedidas, con expresión del programa y crédito presupuestario al que se imputen, así como el listado de las entidades adjudicatarias y cantidades concedidas, dentro del marco de la normativa vigente.

8. artikulua. Diru-laguntza ordaintzea.

Artículo 8. Pago de la subvención.

1. Diru-laguntzak zehazten den prozeduraren arabera onartu ondoren, eta prozeduraren ebazpenaren jakinarazpenagatik gutxienez hamar egun igarota, emandako diru-laguntzaren %100 ordaintzeko izapidea egingo da, eta horretarako ez zaio inolako bermerik eskatuko erakunde onuradunari.

1. Una vez aprobadas las subvenciones conforme al procedimiento establecido, y transcurrido el plazo mínimo de diez días a contar desde la notificación de la resolución del procedimiento, se procederá a tramitar el 100% del importe de la subvención concedida,

Orokorrean, diru-laguntza osoa ordainduko da ematen den unean bertan, eta onura jasotzen duen erakundeari ez zaio horretarako bermerik eskatuko.

Con carácter general el pago total de la subvención se realizará en el momento de su concesión, no exigiéndose para ello garantía alguna a la entidad beneficiaria.

2. Dekretu honetan ezarritako diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko, nahitaezko baldintza da erakunde eskatzaileek egiaztatzea zerga-betebeharrak, Zuzenbide Publikoko gainerako betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin hartutakoak betetzen dituztela. Hori guztia eskaera aurkezten denean bete behar da, bai eta diru-

2. La concesión y el pago de las subvenciones quedan condicionados a la acreditación por parte de las entidades solicitantes del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y demás de Derecho público y frente a la Seguridad Social, circunstancia ésta que deberá concurrir en el momento de la presentación de

laguntza ematen denean, betebeharra aitortzen denean eta ordainketa egiten denean ere. Espedientean justifikatu edo frogatu behar da, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauarekin bat etorriz.

la solicitud y mantenerse en el momento de la concesión, en el reconocimiento de la obligación y en el pago, lo que se justificará en el expediente de conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

3. Halaber, erakunde eskatzaileei dekretu honetan ezarritako diru-laguntzak emateko eta, hala denean, ordaintzeko, nahitaezko baldintza da itzulketa-prozedura guztiak edota prozedura zehatzaile guztiak bukatuta egotea, baldin eta prozedura horiek hasi badira Bizkaiko Foru Aldundiak berdintasunaren arloan emandako laguntza edo diru-laguntzei buruz, eta oraindik prozedura horiek izapidetzeko badaude.

